

[b] BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
601. zkia.
XV. urtea
2007ko otsailaren 9a

## Zubibai elkartea

# «Altzolako arazo eta gabeziei irtenbidea emateko sortu gara»

[ BERBETAN ] ASUN LARRAÑAGA • [ KULTURA ] SANTA ESKEA ARGAZKITAN

Elgoibar eta Mendaro

# 2007ko Gida Komertziala




- Diseinu berria.
- Dena koloretan.
- Mapak
- Autobus eta trenen ordutegia
- Farmazien egutegia

Informazioa:
943 74 37 04
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Eta 2007an www.elgoibarren.net web orrian jarriko dugu denon eskura.



TEMPUR laxy Mediterraneo OLDSAN MASH

## Oldsan koltxoi berriak arnasa hartzen du...

Respiral izeneko sistema berri bati esker koltxoiek arnasa hartzen dute: Koltxoi barruko izerdia kanporatzen du eta mikroklima egoki bat mantentzen du, horrela gorputza tenperatura egokian mantentzen da.

Lehengaiak: Landareak
- Olio-sojaz gainestalita dago.
- Triocell egitura du.




Pasa zaitez produktu naturaletara!

Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

**LAGUNAK**

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com





# ZOZOAK BELEARI...

**Aitzol Garmendia**

Sare,

Egunkariaren orrietan barna hona zer aurkitu dudan. Metalaren industriako langileen federazioak egindako ikerketa baten arabera, esate baterako, Angolako langile batek ordua eta 33 minutu lan egin behar ditin ur botila litro bat bereganatzeko. Tanzanian ostera 2 ordu eta 24 minutu. Gauza bera lortzeko Estatu Batuetan 3 minuturekin nahikoa zaien.

Bestalde, hungariar langile batek 17 minutu lan egin behar ditin patata kilo bat erosteko, Indonesian 36 eta Noruegan 2 minutu besterik ez.

Azkenik, auto berri baten jabe egiteko Angolar langile horrek 20.618 lan-ordu izarditu behar ditin, 10 lan-urte baino gehiago. Belgikan 1.380 ordu nahikoa.

Aldi berean, munduko hainbat lekutan, Hong Kong, Colombia, India, Mexiko, Peru edo Tailandian asteko 48 ordu baino gehiago lan egiten ditun. Ostera Frantzian 35 orduko lan-asteak indarrean jarraitzen din eta baita Alemanian ere, sektore batzuetan bederen. Estatu espainiarrean 40 orduko dun lan-astea, baina jakin nahiko niken urtearen buruan lan egindako ordu extra kopurua eta bide batez, orokorrean, sektore askoren efizientzia. Datu binomio horrek zurbildu edo gorrituko liken enpresario eta politiko batzuren aurpegi aldea. Egiari zor, agian horrek ere ez.

> **«Estatu espainiarrean 40 ordukoa dun lan-astea»**
>
> Aitzol

> **«Ez genikek ongizatea zenbakitan neurtu behar»**
>
> Sare

**Sare Gurrutxaga**

Ez zekiat enpresaburuei zer nolako aurpegia geratuko zitzaien, gorri, txuri edo berde, baina zurbiltzeko moduko datuak eman dituk.

Ez dakigunik ez duk esan, baina zenbakitan gauzek beste ikuspuntu bat hartzen ditek. Hor agertzen dituk, paperaren gainean, letren melodia lasaia hautsiz. Gure begietatik sartzen dituk munduan gertatzen denaz ahaztu ez gaitezen, tripazorria sortzeraino.

Iparraldea eta Hegoaldea; Erdialdea eta Periferia. Botila bat ur edo ur botila bat izatearen diferentzia. Urrak eta intxaurrak, edo urrik ere ez eta urrutiko intxaurrak izatearen diferentzia. Prakak nahita urratzearen edo urratutako prakak izatearen diferentzia.

Ez genikek ongizatea zenbakitan neurtu behar. Ez genikek ongizatea materialki neurtu behar. Baina halaxe duk eta erraz esaten diagu hori gure ipar-erdialdeko perspektibatik.

"Ongi" bizi gaitukela ematen dik hire datuak alderatzean, baina oraindik ez diagu irri egiten. Kexu gaituk zenbaki batzuk gora-behera. Azken finean, hemen jaio izanagatik ez diagu gure eskubideen alde borrokatzeari utziko.

Nik beste datu batzuk papereratuko nitizkek: zenbat denbora behar diten Angolan irribarre bat oparitzen eta zenbat behar diagun gure herrialde ahalguztidun honetan.

> LANAK HIRU GAITZ ESKERGA URRUNTZEN DITU GUGANDIK:
> ASPERDURIA, BIZIOA ETA BEHARTASUNA
>
> Voltaire

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Kontseiluaren neurketa

Euskararen Kontseiluaren neurketa dela-eta, urtarrilaren 26ko alean zera argitaratu zenuten, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak udalerrietako hizkuntza politikak aztertzeko egindako neurketaren gainean: "...Neurketa horretan Elgoibarko Udalak 10 puntutatik 5,8 lortu ditu, hain zuzen ere, puntu gehien lortu dituen hamargarren Udala izan da...".

Hala ere, Kontseiluak, neurketa hau egin eta gero kaleratu duen balorazioan honako ondorio nagusi hau azpimarratu du: "...Euskara lehenesten dela bermatzeko 7 puntu lortu behar dira, zazpiak mugatzen du euskara sustatuko duen oinarrizko hizkuntza-politikaren lerroa, 7tik 10erako tarte horretan behar ditugu geure udalerriak. Baina udalerri bakarrak ere ez du lortu. Hori dela-eta, Kontseiluak udalerrietan hizkuntza-politika berri bat behar dela aldarrikatu du...".

Aipatzen duzuen gaian informazio osoa eman behar dela iruditzen zait.

**Juan Mari Mendizabal**

## Gazteria independentista aurrera! Hitza eta erabakia askatasunez!

Terroristak. Azkenean, gure herrian arrotza den espainiar Epaitegi Gorenak Segi gazte erakundearen aurka eta ondorioz euskal gazteriaren aurkako epaia kaleratu du. Eta norbaitek pentsa bazezakeen gatazkaren konponbiderako norabidean urrats bat izan zitekeela oker dago. Segi gazte erakundea terrorista izendatu dute eta bertan auzipetuak ziren 23 gazte atxilotuak izan eta sei urteko espetxe zigorrera kondenatuak izan dira.

Guzti honen aurrean euskal gazteri independentistok gure desadostasuna eta haserrea agerian utzi behar dugu. Oso argi dugu ez dela 24 gazteren aurkako epai bat, ez da modu pertsonalean ulertu beharreko epai bat; baizik eta, euskal gazteria osoaren aurkako epai bat dela, momentu honetan duen larritasunarekin. Epaiak gazteon artean guztiz sustraitua dagoen independentzia eta sozialismoaren proiektua zanpatzea du helburu. Etorkizuneko gazte belaunaldien antolakuntza eta borrokarako eskubidea zapalduaz eta gatazkara kondenatuaz.

Guztiak bakeaz eta elkarrizketaz ari diren unean argi dago PSOEk errepresioaren bidetik, gatazka elikatu eta prozesua desitxuratzea besterik ez duela nahi, PPren bide okerretik joanez.

Baina argi dago ez dutela euskal gazteria independentistarekin amaituko. Euskal gazteok aspaldi egin genuen Euskal Herriaren aldeko hautua. Ez dute proiektu independentista geldituko. Antolakuntza eta borrokaren ateak zabaltzen jarraituko dugu hori delako herri honen etorkizuna bermatzeko bitarteko bakarra. Zentzu horretan dei egiten diogu Euskal Gazteri osoari bereziki eta gainontzeko herritarrei sententzia honi erantzuteko, horretarako bere babesa erakutsiz, bai atxikimenduaren bitartez, gaztesarea.org-en dagoen gazteria aurrera manifestuari atxikimendua adieraziz, eta baita bihar, otsailak 10, Donostian arratsaldeko 17:30ean egingo den manifestazio nazionalean parte hartuz. Gora euskal gazteria!

**Gazteria independentista**

## Sasikoipetsu Eguna Mendaron

Zomorroen mozorroez datoz inauteriak Nafarroatik. Antzinako euskaldunen egutegian urte sasoia orain hasten omen zen, eta inauteak omen ziren horren ospakizun, urtea urtzea baita muinean, elurrak urtzea. Mendaron gure arbasoek sasikoipetsu egiten ei zuten basoan natura urte/urtze berrira esnatzen ari zela ospatzeko.

Motxailak, euskaldunak eta apatxeak, gorostiak eta pasmobelarrak, zapelaitzak eta aitxitxa marietakuak, prostibuloetakoak eta pateretakoak, gutxiengo ilegal gara denok, denok desagertzeko zorian gauden espezieak. Baina ez gara desagertuko gerrarik eman gabe.

Indar txiki hauen batasunari egin nahi diogu dei otsailaren hamargarren eguneko eguerdian Aran errekako bailara zaintzen duen Aitzbeltzeko haitzulotik, ipuin eta kantu, bertso eta dantza.

Norberak eraman ditzala jana, edana eta irudimena.

**AitzBeltz Elkartea**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b] barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Urruzuno INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.590 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## TXALOAK

• The Machine Tools musika taldeak eskerrak eman nahi dizkie IMH eguneko kontzertua posible egin zuten guztiei: "gure eskerrik beroenak kontzertura etorri zinetenei izan genuen harreta bereziagatik. Eskerrik asko bereziki, IMHko pertsonal eta ikasleei, Korori bideo grabaketak egiteagatik eta DVDak prestatzeagatik, eta pazientzia handia eta gero, kontzertua IMHko webgunean eta Google bideon zintzilikatzeagatik. Edurne Bilbaori beti laguntzeko prest egon zarelako, IMHko kafetegiko Rafa eta Ainarari, Océ-ko Daniri, mantenimenduko pertsonalari, soinu lanetan egon zen Audio Skan-eko Santiri, patrozinatzaileei; bereziki, Elgoibarko Idama ileapaindegiko langile autentikoek gurekin pasa zuten denboragatik. Eta nola ez, etxean 3 hilabete hauetan izan ditugun ausentziak aguantatu behar izan digutenak ere, ez ditugu ahazterik nahi. Eskerrik asko guztioi".



• Txalo bero bat Santa Ageda eskean atera zirenei: "Goizean goizetik kaleak kantuz alaitu zituzten eta txalo bero bat merezi dute. Ohetik entzun nituen lehenengo koplak. Hotz zegoen eta ez nintzen leihora atera, baina gero, erosketak egitera joan nintzen eta kalean topo egin nuen beraiekin. Urtero ikusten ditut eta urtero emozionatzen naiz. Polita da benetan. Aspaldiko ohitura zaharrak mantendu egin behar ditugu. Jende gazte gutxi ikusi nuen eta pena hartu nuen. Espero dut ekintza hau ez galtzea eta erreleborako jendea egotea. Segi horrela urte askoan".

## KEXAK

• Goizeko 8:00etan Madalako bidegurutzeko semaforoak itzalita egoten dira: "Madalako bidegurutzeko semaforoa argi naranjarekin egoten da goizetan, eta zebrabidea dagoen arren, autoak ez dira gelditzen oinezkoi pasatzen uzteko. Ordu horretan Osasun Zentrora doan jende nagusi asko eta ikastolara doazen ume mordoa ibiltzen da ingurune horretan. Askotan, ahal duten moduan gurutzatzen dute bidea eta arriskutsua da. Asteburuetan gauza bera gertatzen da. Mesedez, jarri semaforoa martxan. Eskerrik asko".

• KZguneko lokalean hotz handia egiten du: "Sinestezina da Udalaren lokala izanik, zelako hotza egiten duen KZgunean. Hasieran ez zara konturatzen, baina ordu erdi pasatzen denerako, eskuak eta hankak izoztuta gelditzen zaizkizu. Erabiltzaile asko ditu KZguneak eta berogailu sistema berritzeko eskatu nahi genioke Udalari, bertan geldirik egoteko tenperatura egokia beharrezkoa da".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

DANOBAT

kutxa

GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN *luma*

## *Agur dantzari, agur*

Urtarrilaren 30ean dantzakide bat joan zitzaigun. Eibarko Kezka dantza-taldeko kidea zen Maitane. Gogoan dut lehenengoz ikusi nuen eguna. Neska hilehoria, begi urdinduna eta sendoa. Irribarre maltzurra ezpainetan eta hitza beti ahoan. Parrandazalea zen, dantzazalea, lagunzalea. 16 urte edo izango zituen orduan. Joan denean, 18 baino ez. Burukominak jo zuen hasieran, eta parranda ostekoa zirudiena minbizi arriskutsua zela jakin genuen laster. Gogoan dut minbizi-tumorea zuela jakin eta ikusi nuen hurrengo aldia. Irribarreak ez zion alde egin ezpainetatik, baina haren begi urdinei lehengo distira falta zitzaien. Urte eta erdi inguru egin du borrokan, eta min asko jasota joan da. Loratzen ari zenean joan da Maitane, inguruko lore zahar guztiak ximelduta utzita. Makina bat argazki eta oroitzapen utzi digu, eta dagoen lekuan dagoela hemen baino gutxiago sufrituko duela sinestea baino ez zaigu geratzen. Muxu handi bat, Maitane.

*Ainhoa Lendinez*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### MILA OSORO

OSORO OINETAKO DENDAKOA

• **Oinetako on baten ezaugarriak?**
Horma eta plantila ona edukitzea, narru biguna eta takoia ez dadila ez handia ez txikia izan.

• **Takoia dotoreziaren sinonimo al da?**
Bai, okasio berezietarako.

• **Inoiz eskatu dizuten oinetako zenbakirik handiena?**
Emakumezkoetan, 43-44 zenbakia. Gizonezkoetan, berriz, 48-49a.

• **Zenbatean behin aldatu beharko genituzke oinetakoak?**
Nire iritziz, oso gomendagarria litzateke hankentzako, goizean zapata mota bat eta arratsaldean beste bat erabiltzea. Hau da, takoia aldatzea.

• **Elgoibartarrok behar besteko garrantzia ematen al diegu oinetakoei?**
Bai. Herritarrak oso ongi janzten dira.

• **Zein tejidorekin geratzen zara?**
Antearekin: oso biguna da eta koloreak suabeagoak dira.

• **Zer dago une hauetan modan?**
Bota da momentuko oinetako izarra.

• **Oinetako saltzaile ez bazina?**
Ileapaintzaile.




154 notizia
320 komentario
20.650 bisita

Hiru zenbaki eta proiektu bat.

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

## [AKORDATZEN NAIZ]



### MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

# «Andaluziako ibilbidia»

Oso ona. Han, bertako jendiakin ibiltzen nitzan. Logroñon eta hemengo jende asko zauan, eta hárekin ibiltzen giñan, baiña Sevillan ez zauan euskaldunik.

Nerekin zan beste lehengusu bat, Elgoibarkua, Gabilondo, eta hori zauan jokatzen Betis-en. Tertzeran zauan orduan. Alkarrekin egon giñan bizi izaten.

Eurak (Betisekuak eta Sevillakuak) arpegixa alkarri apurtzen beti, eta gu alkarrekin kalian; kafetegi guztixetan, euren soziedadian, neure soziedadian. Oiñ ere, berdin-berdin. Dendak ere, batzuk Betiseko koloriekin eta bestiak Sevillako koloriekin. Gorrotua kristona orduan ere, eta oiñ ere, berditsu. Eta gu, alkarrekin. Partidu inportante bat zauanian ere, bixok alkarrekin radixora, bixon deklaraziuak hartzen. Zan rarua guria! Rarua baiña, eh!

Andaluza ona da baiña. Gurekin ondo portau ziran. Oso pozik egon nitzan Sevillan eta Kordoban. Hango problemia berua da. Hango berua! Entrenau egin bihar zan goizeko 9:00etan, eta han 40 gradukin jokatzen. Han 40ºC normala da. Gero, gaiñera, etxera jun eta lo egiñ ezinda beruakin. Oiñ, sikiera, aire egokittua-eta badaude; orduan ez zauan halakorikan. Halaxe ziran gauzak. Etxiak ere erdipurdikuak hartu bihar, bestela sueldua bertan juten zan.

## [GURE BERBAK]

### *Moduzko esaldixak (1)*

Moduzko esaldixekin emango diogu amaieria mendeko esaldi guztixeri. Esaldi nagusixan adierazten dana nola gertatzen dan azaltzen dabe esaldi hónek. Hona hizpide hartuko dittugun moduzko menderagaillu batzuk: -eLA, -TUAZ (-TUEZ), -TU AHALA, -eN BEZELA, -eN MODUAN, -TUTA, -TU BE... Hasteko, -eLA menderagailua aittatuko dogu. Beste erabillera batzuen artian, moduzkua ere badau. Hona adibide batzuk:

*- Baiña pelotari elegantia izen dok hori, e! Horrek eskuturrakin, gorputza geldi-geldi dakala, pelotia ondo etaratzen dau.*
*- Bai, baiña, gerrarik eta eztaguala, sano egon ezkero, soldautzia pasatzia eztok ezer. Hantxe egon bihar dala!*
*- Fubolian ari nitzala bihurrittu naban orkatillia.*

-eLA bezela, bada –eLARIK menderagaillua ere. –eLA-ren antzeko erabilleria dauka, nahiz esan bihar dan gure artian ez dala erabiltzen (ez baldin bada liburuetan ikasittakua). Herriko jardunian egin nahi izanez gero behintzat, nik neuk ez neuke erabilliko –eLARIK hau. Bestelako jardunetan erabiltzeko, ez dago gaizki, baiña kontuz erabiltzeko atzizkixa da, gure-guria ez danez ez dakigulako –eLA bezaiñ ondo erabiltzen. Datorren astian landuko dogu sakonago –eLARIK atzizkixa, eta han esango dogu nola erabilli leiken menderagaillu hau eta nola ez.

*Jesus Mari Makazaga*



## ESKERTZA

2007ko otsailaren 2an hil zen
***Luis Mari Zubiaurre Gurrutxaga***ren sendiak,
bihotzez eskertzen du jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZUBIBAI ELKARTEA

# ALTZOLAKO HOBEKUNTZEN ALDE BORROKAN

*"Zubibai elkartea" Altzolako hainbat auzotarrek pasa den uztailean sortu zuten elkartea dugu. Gaur egun zortzi pertsonek eratzen dute Zuzendaritza Batzordea eta Alfonso Rubio da elkarteko presidentea. Helburua, Altzolako beharrak defenditzea da. Honen harira, Udalak asteazkenean, 384.406 euroko aurrekontua onartu zuen Altzolarako.*

### ZUBIBAI ELKARTEAREN HELBURUAK

Elkarte honen bidez, hainbat helburu lortu nahi dituzte. Oro har, Altzola auzoarentzat hobekuntzak eskatzen dituzte eta gaur egun, Elgoibarko auzo honek bizi dituen gabezia eta arazo askotarikoak konpondu gura dituzte. Modu berean, auzotarrei elkartzea ahalbidetuko dien lokal bat egokitzeko eskaera igorri diote Udaletxeari. Izan ere, Zubibai elkartekoak duten asmoa, urte guztian zehar, kultur, kirol eta bestelako ekimenak antolatzea da, auzo bizitza sustatzeko asmotan. Hau posible izateko ordea, ez dute lokal egokirik.

### BILERA ESKAERA UDALARI

Guzti hau dela eta, Zubibai elkarteak, 26 gaiez osaturiko zerrenda aurkeztu zion Udaletxeari pasa den urtarrilaren 22an. Bide batez, Udaletxeari bilera eguna ezartzeko eskatu zion eta astearte honetan jaso dute Udaletxearen erantzuna. Hain zuzen ere, otsailaren 19rako egin dute hitzordua.

Alfonso Rubioaren arabera, "Altzolak dituen gabezia eta arazo nagusiak betidanik duki ditu, bai beintzat nik hemen daramatzadan 15 urtetan". Baina, auzotarren desadostasuna eta ezinegona eragin eta beren pazientzia agortu duen azkenengo jarduera, pasa den maiatzean, Altzolako parkean eraikitzen hasi ziren etxebizitzak izan dira. Honen Harira, Alfonso Rubiok zera oroitarazi digu: "1999. urtean Eusko Jaurlaritzak Altzolako auzoa, gune degradatu izendatu zuen. Beranduago, Elgoibarko Udaletxeak Izartu programaren baitan, gune berdeak eta ingurugiroa sustatzeko egitasmoa aurkeztu zuen". Auzotarren ezusterako, ordea, Udaletxea kontraesan batean erori da, izan ere, Altzolari bere garaian ezarria izan zitzaion izendapena kentzeko jardueraren bat aurrera eraman beharrean, alderantzizkoa

## Aldarrikapen nagusiak



*Altzolako zona berde bakarra, hots, parkea desagertu da; eraikitzen ari diren etxeek jan dutelako erabat.*



*Herrigunetik igarotzen den errepidean ibilgailuak, izugarrizko abiaduran ibiltzen dira. Elgoibar alderako autobus markesinaren kokapena ez da egokia.*





*Altzolako hilerrira igotzeko aldapa egoera txarrean dago. Malda handia du eta maiz, lurra irristakorra dagoenean, hilkutxaren autoak ezin izaten du igo.*

egin dute: "Altzolan geneukan parke eta zona berde bakarra kendu digute eta zuhaitz pila bat bota dituzte (asko ehun urtetik gorakoak) etxeak eraikitzeko". Zubibai elkartekoek jakinarazi digutenez, eraikitzen dihardute etxebizitzek parkearen 2/3 betetzen dute eta etxeak hasieran aurreikusi zirenak baino garaiagoak egiten ari dira. Zubibai elkarteko partaideen aburuz, hain sentikortasun handiko kontu bat, bestelako modu batean tratatu behar zuten Udaletxetik; aldez aurretik auzotarrei informazio osoa eskainiz eta beraiekin kontsultatuz, eta ez soilik informazioa BOEn argitaratuz. Horrexegatik, Alfonso Rubioren hitzetan, "gure elkartearen bitartez erdietsi nahi dugun beste helburuetako bat, Udaletxearen eta gure arteko solaskide bat edukitzea da, aurrerantzean burutuiko diren ekintzen berri aldez aurretik eduki dezagun". Modu berean, Elgoibarko elkarteen zerrenda bat eskatu nahi dugu, binztanlegoaren zentso bat egin dezagun eta egunen batean, ohikoa baino delikatuagoa den gairen bat kontsultatu behar izanez gero, eskura edukitzeko. Era berean, "Altzolako etxebizitzak espreski hizpide izango dituen bilera bat burutzea nahi dugu; arau subsiadiarioak betetzen ari diren edo ez jakiteko".



## Arazo larrienak

Alfonso Rubioren hitzetan, Altzola ondotik igarotzen den errepide nazionala, zinez gune arriskutsua da eta horren adierazgarri azken urteotan, istripu ugari gertatu dira; urte batean, emakume bat hil egin zen zebra bidea gurutzatzen ari zela auto batek harrapatu ostean. Alfonsoren arabera, "1993. urtetik, Elgoibarko Udaletxeak Foru Aldundiarekin, ibilgailuen abiadura kontrolatzeko semaforoak ezartzeko konpromisoa hartu zuen. Denbora guzti honetan, ordea, ez da neurririk hartu". Gisa berean, Altzolarako sarrera eta irteerak ere oso arriskutsuak dira.

## Beste zenbait eskaera

Altzolan etxe huts asko daude egoera txarrean, beraietako askotan arratoiak eta guzti daude. Bizitoki hauen gaineko kontrol bat eramatea eskatzen dute.

Altzolako estolden egoera ere ez da batere egokia eta elkartekoek ikertu egin behar dute benetaz ez dituzten estolda batzuengaitik zergak ordaintzen ari ote diren.

Esanguratsua da baita, Altzolan ez dutela Euskaltel eta Gas Natural zerbitzua jasotzen. Ondorioz, elektrizitatearekin, butanoarekin eta depositoekin diraute.

*Frontoia oso zaharkitua dago. Hormak eta lurra zartatuta eta margotu gabe daude. Zementu egokirik ere, ez dute bota. Euri gutxirekin, potzuak eratzen dira.*





*Trenbide geltokira igotzeko eskailera eta barandaren egoera oso ezkorra da. Gainera, Altzolako apeaderoan trenak, pare bat geldiune bai-no ez ditu egiten.*

*Elektrizitatearen kableak kanpoan kokaturik daude. Haizeak jotzen duenean, zuhaitzak bota eta kableak hautsi ditzazke. Hori dela eta, kableak lurpetik pasatzeko eskatzen dute.*





*Errekaren hegalak zikinkeriaz eta sastrakaz beteak daude. Zubia eta barandak konpondu gabe. Argiztapena ere eskasa da.*

## [ PROTAGONISTA ]



### XabierArakistain

Xabier Arakistain "Arakis" elgoibartarra izango da aurrerantzean Gasteizko Montehermoso kulturuneko zuzendaria. Komisario independente gisa jardun du lanean orain arte, batez ere, arte garaikidearen inguruan eta abangoardia berrien ildotik. Geldirik egon ezin den horietakoa izanik, batera eta betera mugitu da "Arakis" bere ideia eta kontzeptuak zabalduz, baina, orain, Montehermoso moduko erakunde publiko bateko arduradun izateko ordua iritsi zaiola uste du. Erronka berri bati ekiteko garaian dagoela adierazi du Bilbon bizi den elgoibartar honek.

## [ NOTIZIA ]

# 17.803.867,23 euroko aurrekontua izango du Udalak 2007. urtean

Aste honetan bertan onartu ditu Udalak 2007rako aurrekontuak. EAJ, EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin eta PPren eta Ezker Batuaren abstentzioekin, 17.803.867,23 eurokoa izango da aurtengo aurrekontua, 2006koa baino 1.341.561,23 euro gehiago, hain zuzen ere. Aurrekontu honetatik, 1.181.961 euro San Lazaro egoitzarentzat izango dira (alderdi guztiek aldeko botoa eman zioten honi) eta 895.793,32 euro Kirol Patronatuarentzat (PPk kontra bozkatu zuen).



**Inbertsioak gora**

2006ko aurrekontuarekin alderatuta, inbertsioak %25,48an handitu dira. Atal honetan, hezkuntza aipatu behar da, Herri Eskolan berrikuntza garrantzitsuak egitea aurreikusten baita. Bestalde, bolatokiko komunak eta aldapa konponduko dira. Ion Zubiaurreren hitzetan, "anbizio handiko aurrekontua da, plurala, herritarren beharrak asetzen dituena... azken batean, gure programarekin koherentzian egindakoa".

## [ ZENBAKIA ]

**152**

2006an 152 kotxe laga ziren bide bazterretan botata Debabarrenean. Gero eta gehiago dira kotxeari baja ematerako orduan herriko txokoetan lagata uzten dituztenak. Elgoibarren 29 izan ziren bazterretan lagatako autoak, eta 2007a hasi denetik, 8 auto jaso dituzte udaltzainek.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Juanito Gorostiza eta Jose Luis Aldalur Elgoibar izeneko kalean ageri zaizkigu erretratuan. Gure herriak kale bat dauka Donostian. Ramon Maiztegi zena hasi zen Donostiako Udala zirikatzen, gure herriak Gipuzkoako hiriburuan kale bat behar zuela esanez. Honek hasitako lanari Mikel Gorostizak eman zion segida, eta 2000. urtean erabaki zuen Donostiako Udalak kale bati Elgoibar izena ipintzea. Ospitaletik gertu dagoen auzo batean kokatu dute. Ez dauka espaloirik ere, baina aldamenetan txalet ederrak daudela kontatu digute.

# Euskal jaiaren 100. urteurrena gogoratzeko logotipo lehiaketa antolatu du Udalak




Duela 100 urte, 1907an, urte guztian luzatu ziren Euskal Jaietako ekintzak gure herrian. Bertsolarien saioak, musika kontzertuak, txapliguak, dantza erakustaldiak... izan ziren ordu hartako ekitaldi garrantzitsuenak. Aurten, euskal jaiaren mendeurrena gogoratuko da uztailean, eta horretarako, Udala ekintza desberdinak antolatzen ari da. Egitaraua oraindik ez dago itxita, eta Udaletik jakinarazi digutenez, herritar guztion ideia eta proposamenak entzuteko prest daude. Interesatuek 943 744366 telefonora deitu dezakete.

**Logotipo lehiaketa**

Hasteko, Kultura eta Euskara Batzordeek euskal jaien mendeurrena gogorarazteko logotipo lehiaketa antolatu dute. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte lehiaketa honetan. Lanak paperean aurkeztu beharko dira Kultur Etxean datorren otsailaren 23a baino lehen eta irabazlearen izena otsailaren 28an jakinaraziko dute. Irabazle bakarra egongo da eta irabaziko duen saria 300 eurokoa izango da. Logotipoan derrigorrez agertu beharko da ondorengo testua: “1907-2007 Euskal Jaiak Elgoibar”.

## Jon Peli Uriguen izango da EA alderdiko zerrendaburua



Eusko Alkartasuna alderdiak atzo aurkeztu zuen maiatzeko Udal Hauteskundeetarako zerrendaburua: Jon Peli Uriguen izango da EAko alkategaia. Jon Peli berria da politika munduan eta independiente moduan aurkezten da. EAtik esan digutenez, Jon Pelik euskara eta kultura munduan daukan esperientzia baloratu dute. Alderdiak bere aldeko apustua egin du eta oso gustura daude egindako aukeraketarekin. Jon Pelik 38 urte ditu eta komertzial moduan egiten du lan Elay enpresan. Zerrenda guztia oraindik ez daukate itxita, eta bereaien nahia aurpegi berriak sartzea dela esan digute.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### AEKrekin sagardotegira

AEK euskaltegiak sagardotegirako irteera antolatu du, otsailaren 23rako, Lasarteko Larre-Gain sagardotegira, hain zuzen ere. Interesatuek AEK euskategira jo dezakete zuzenean, 943 741332 telefonora deitu edo elgoibar@aeknet.net helbidera idatzi otsailaren 15a aurretik.

### Uxue Alberdiren liburua kalean da

Uxue Alberdi kazetari elgoibartarrak “Aulki bat elurretan” liburua kaleratu du. Iazko Igartza Saria irabazi zuen Uxuek eta horri esker kaleratu ahal izan du liburua. Suediako Karlstad hirian kokaturiko ipuin bilduma batek osatzen du liburua.




### Enrique Bert izango da BARRENeko zuzendari berria

Enrique Bert izango da aurrerantzean BARREN astekariko zuzendaria. 1981. urtetik Gasteizen bizi den arren, jaiotzez elgoibartarra da bera. 43 urte ditu eta bi seme-alaba. Enrike ilusio handiz hasi da bere lan berrian eta proiektuari bere ekarpen onenak egiteko asmoa dauka.



## IRAKASLEARI azterketa

Haur Hezkuntzako Irakaslea

ION MARDARAS



**1 Irakasle edo ikasle paperean aurkitzen zara erosoago?**
Bi lanetan dihardut momentuan. Aukeran, ordea, nahiago irakasle.

**2 Zuk jasotako hezkuntzaren eta oraingo hezkuntzaren artean alderik?**
Aldaketarik nabarmenena metodologian eman da. Gaur egungo liburu eta esku liburuen eskaintza zabalagoa da.

**3 Zein da ikasleei gehien erakartzen dien irakasgaia eta gutxien?**
Gustukoena ingurunea: natura, animaliak eta gisa honetako gaiak lantzen direlako. Gutxien, berriz, matematikak.

**4 Ba al dago ikasteko metodo eraginkorrik?**
Niretzat behin eta berriz egiten den irakurketa garrantzitsua da. Gauzak ulertzen saiatzean dago gakoa.

**5 Zer moduzko ikaslea zinen zure ikasle garaian?**
Nik neuk ikasle ona nintzela esango nuke.

**6 Zergatik hautatu zenuen irakasle lanbidea?**
Gustuko izan dut betidanik eta behin lanean hasita oso pozik nago.

**7 Zer da errazagoa, haur txikiekin ala nagusiagoekin lan egitea?**
Txikiak bihurriagoak izan arren, kasu gehiago egiten dute.

**8 Egia al da irakasle lanbidea "txoilo" bat dela?**
Oporrei dagokionez bai, osterantzean, beste edozein lanbide bezala.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala





| GALDERAK | EDURNE GURRUTXAGA ama | ITZIAR JUARISTI alaba |
|---|---|---|
| 1. Bisitatu duzun hiri eder bat? | 1. Buket, Thailandian. | 1. Vigo. |
| 2. Irakurri duzun azken liburua? | 2. Pisando los talones. | 2. Yunibe |
| 3. Nori eskatuko zenioke autografo bat? | 3. Ez nioke inori eskatuko. | 3. Ez nioke inori eskatuko. |
| 4. Zer animalia oparitzea nahiko zenuke? | 4. Ez naiz animalia zalea. | 4. Katu bat. |
| 5. Zer izan nahi duzu/zenuen handitan? | 5. Gauza pila bat: medikua, botikaria... | 5. Andereñoa. |
| 6. Zerk ematen dizu tristura? | 6. Gauza mingarriek. | 6. Pelikula tristeek. |
| 7. Igande baterako plan ezinhobea? | 7. Txango bat eginez eguna pasatu. | 7. Lagunekin geratu. |
| 8. Zer abesti talde duzu gustuko? | 8. Supertram. | 8. Ken Zazpi. |

## TXIKI inkesta

### Prestatu al duzu aurtengo mozorroa?



**Vahan Nazarian**
10 urte

Bai. Vikingoz jantziko naiz. Lehengo urtetik daukat jantzia eta birziklatzea gustatzen zait.



**Iraitz Gonzalez**
10 urte

Bai. Lehiaketan dantza egitea pentsatuta genuen. Nahiz eta lehiaketa ez egon, pirataz joango gara lagun guztiak.



**Julene Garcia**
10 urte

Bai, baina ezin dut esan. Barregarria da eta agian kalera ateratzeak lotsa emango dit; hori bai bero bero egongo naiz.



**Nerea Cabo**
10 urte

Bai. Ni Mañukorta bertsolariaz mozorrotuko naiz, jendeak barre egitea gustatzen zaidalako.

## LEHIAKETA

### Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: ..........................................

..........................................

Izen abizenak: ..........................................

Telefonoa: ..........................................

**SARIA**
Elhuyar-ek eskainitako
"Euskal Herriko soinu-tresnak"
CD-ROMa



AURREKOA:





Irabazlea: Nora Isasti

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARRENera ekarri edo posta elektronikoz bidali:
barren@elgoibarkoizarra.com

# Inkesta

Iñaki De Juanaren erretratuek polemika handia sortu dute.

## Iñaki De Juana aske utzi beharko luketela uste al duzu?

**ROBERTO GORRITI**
Tailerreko langilea
37 urte



“Bai, bere zigorra beteta dauka dagoeneko, eta aske egon behar luke. Orain jarri dioten kondena honek ez dauka logikarik, aspaldi egon behar zuen kalean.”

**ANA ESCUDERO**
Jubilatua
44 urte



“Bai, dudarik gabe, baina osasun egoeragatik baino gehiago, bere kondena beteta daukalako. Iritzi artikulo batzuk idazteagatik ezin da inor preso eduki.”

**KOLDO ARANBURU**
Tailerreko langilea
52 urte



“Bai noski, duela urte batzuk egon behar zuen aske. Hau guztia estatuaren joko antidemokratiko bat da. Demokrazia aldarrikatzen dute, baina argi dago ez dela horrela.”

**ANGELIKA RAMIREZ**
Klinikako laguntzailea
38 urte



“Bai, bere etxean egon beharko litzateke. Bisitak debekatzea ere, oso gaizki iruditzen zait. Pertsona bat horrela edukitzea, heriotza zigorra bezalakoxea da.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Zuenean ba al dago San Blas opila jateko ohiturarik?

**BAI %94**

“Bai, gurean majo jaten dira. Pare bat aste lehenago hasten gara sanblasa jaten, eta San Blas eguna pasatutakoan lagatzen diogu jateari. Ohitura ederra da gorputzak gozatzeko.”

**EZ %6**

“Ez. Umeak ginenean amonak egiten zuen, baina inork ez dio tradizio horri eutsi gure etxean. Gainera San Blas opila ez dut gustuko. Garai honetan torradak jaten dira gurean.”

Datorren asterako.... Azken urteotako udarik beroena izango dugula iragarri dute.
**Aldaketa klimatikoak kezkatzen al zaitu?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**.
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# Bakearen Eguna ospatu zuten Pilar Ikastetxean

Urtero bezala, Bakearen Eguna ospatu zuten Pilar Ikastetxean joan zen urtarrilaren 31n, Ghandiren heriotzaren egunean hain zuzen ere. Bakearen alde egin zuen lan Ghandik, eta horregatik, Pilar Ikastetxeak urtero eskaintzen dio omenaldi txiki bat.

Arratsaldeko 16:00etan hasi zen ekitaldia. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, beraz, ikastetxeko frontoian bildu ziren ikasle guztiak. Lehenengo otoitz egin zuten, ondoren, abesti batzuk kantatu zituzten eta ekitaldiari amaiera emateko, bakearen ikurra den usoa askatu zuten. Globoek zerurako bidea hartu zutenean, merienda solidarioari ekin zioten. Patata tortila, txorizoa eta edari freskagarriak ez ziren falta. Merienda honetan ateratako dirua, Miski Gobernuz Kanpoko erakundearentzako izango da, Peruko umeak eskolatzen jarraitu ahal izateko.





## Giro bikaina izan zen Ikastolako ikasleen jaialdian

Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleen jaialdian giro bikaina izan zen. Denetariko ikuskizunak eskaini zituzten, eta batek baino gehiagok, artista izateko dohainak soberan dituela argi erakutsi zuten. Ikastolako frontoia jendez gainezka egon zen, eta umorerik ere ez zen falta izan. Harmaila hotzak, ederki epeldu ziren ikasleen emanaldiarekin. Txalo zaparrada artean agurtu zituzten artista txikiak.

## [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Indamendin izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Indamendira egin zuten irteera ikasle, guraso eta irakasleek. Autoz joan ziren Elkanoraino eta hortik zuzen gailurrera. Zarautz eta inguruko paisaia ederrak ikusteko aukera izan zuten. Hurrengo irteera domeka honetan egingo dute, Andutz mendira.

## [ IKAS KONTUAK ]

### Gurasoentzako Jardunaldiak

Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, aste honetan hasi dira Gurasoentzako VIII. jardunaldiak. Datorren otsailaren 14an izango da 2. jardunaldia, "Guraso eta seme-alaben arteko elkarrizketa bai, baina nola?", eta azkena hilaren 21ean izango da. Maria Mendez izango da hizlaria. Saioak Kultur Etxeko hitzaldi gelan eskainiko dira arratsaldeko 18:30etik aurrera.

### GAZ-Trekin eskiatzera

GAZ-T Aisialdi Taldeak Formigalera eski irteera antolatu du datorren otsailaren 24rako. Materiala alokatu behar dutenentzat prezioa 50 eurokoa da eta gainontzekoentzat 40 eurokoa. Interesatuek otsailaren 12ra arte daukate izena emateko epea. Plazak mugatuak dira eta izena emateko ordena errespetatuko da. Informazio gehiago 943741626 telefonoan (Nagore).

### Atxutxikaraokea

Atxutxiamaikak antolatuta, atxutxikaraokea izango da datorren otsailaren 17an, Plaza Handian arratsaldeko 17:30ean. Parte hartu nahi dutenek, bertan agertzearekin nahikoa izango dute.

# GAZTIA NAIZ



## lotsaGABE

**Omar Gonzalez** *12 urte*

**Zein izan da eduki duzun azken ametsgaiztoa?**
Basamortuan nengoela munstro batek jaten ninduen.

**Noiz egin zenuen negar azkenekoz?**
Lehen, kipula mozten nengoela egin dut negar.

**Zein famatu azaltzen da zure fantasietan?**
Elsa Pataky gustatzen zait asko.

**Eta zuri, gustatuko litzaizuke famatua izatea?**
Bai, dirua erraz irabazi eta ondo bizitzeko.

**Edalontzia erdi hutsik ala erdi beteta?**
Erdi beteta, nahiko baikorra naiz.

**Zein adin izatea nahiko zenuke eta zertarako?**
22 urte, nahi dudana egingo nuke adin horrekin.

**Aberatsa bazina?**
Gauza mordoa erosiko nituzke, etxe bat adibidez.

**Zer eramango zenuke irla desertu batera?**
Janaria, hori da garrantzitsuena.

**Maitemindu al zara inoiz?**
Ez, baditut gustuko neskak baina ez naiz sekula maitemindu.

**Sexuaz asko al dakizu?**
Zerbait badakit, jakin beharrekoa behintzat badakit.

**Batekin askotan ala askorekin behin?**
Batekin askotan, neska bakarreko mutila naiz.

**Zein motatako filmak dituzu gustuko?**
Akzio handikoak, abenturazkoak.

**Politika ala futbbola?**
Futbola. Realekoa naiz eta aurten sufritzea tokatu zaigu.

**Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?**
Tamalez ezberdin tratatzen dira, berdinak izan beharko genuke.

**Ezkondu ala elkarrekin bizi?**
Elkarrekin bizi, ezkontzearena geroago ikusiko da.

**Aita izan nahi al duzu?**
Egunen batean bai, oraindik oso gaztea naiz.



2007-02-09

# argazkitan...

## SAN JUAN BOSKO eguna






1 Goizeko hotzari aurre egiteko korrika apur batekin ekin zioten egunari. Mugerza kroseko korrikalariak moduan, Mintxetako kanpoko aldetik egin zuten saltaka.

2 Gorputza apur bat berotu ondoren, adrenalina apur bat askatu zuten goiti-behera jaitsieran. Partehartzaile gutxi, baina goitibehera bat ikusgarria.



3 Kirola eta kiroltasuna izan ziren nagusi. Futbito txapelketan ikusleen animoak bikainak izan ziren.

4 Argiñanoren pareko sukaldariak! Tortillari buelta emateko makina bat arazo izan zuten batzuk.



SANTA ESKEAREN ERREPASOA ARGAZKITAN

# Santa Agedaren doinuak isildu dira datorren urtera arte

Amaitu dira aurtengoz Santa Agedaren omenezko kopla eta bertsoak. Joan zen asteburuan kale eta baserriak alaitu zituzten santa eskean. Zapatuan, Etxegiña taldekoak kalez-kale aritu ziren goizetik eguerdira arte. Antolatzaileek esan digutenez, 1.160 euro batu zituzten Karitas elkarteari emateko. Domekan, berriz, Elgoibarko Izarrako taldearen txanda izan zen. Duela 15 urte berreskuratu zuen Elkarteak baserriz-baserri santa eskean ateratzeko ohitura zaharra. Plaza Handian elkartu ziren goizean goiz, eta bi taldetan banatuta, Elgoibarko baserrietako ateak jo zituzten. Urtero bezala, bikain hartu zituzten etxe guztietan. Guztira 66 baserritara iritsi dira aurtengoan. San Migeleko sozidadean afalduz eman zioten amaiera egunari. Argazki guztiak *www.elgoibarren.net* helbidean.











# Laser depilazioa

       

*Depilazioa, emakumeen ametsgaiztoa. Gizarteak ez du ilerik onartzen emakumezkoetan. Asko ados egon ez arren, emakume gehienek sufritu dute noizbait argizariaren tirakda. Bukatu da! Laserrak betirako kentzen ditu ileak. Adi Olaiak emandako azalpenari.*

Laser bidezko depilazioaren abantailak asko dira. Idatzi hau irakurri ahala, zeu bakarrik ohartuko zara. Gaur egun merkatuan dagoen depilazio aukerarik onenaz hitz egiten ari gara. Laser mota asko daude, baita ere laser bezala saltzen diren eta kobratzen diren (zeren eta emaitza ona edukitzea bezain garrantzitsua da ekonomikoki prezio konpetitiboak dituen etxe batekin lan egitea) hainbat tratamendu. Horregatik eta ondoren azalduko ditudan hainbat arrazoirengatik erabaki nuen nire zentroan Alquidepil etxea kontratatzea. Alquidepilek diodo laserrarekin egiten du lan. Diodo laserrak teknika ezberdina erabiliz (onda, distantzia, energia, pultso iraunkortasuna eta hozteko sistema azkarra). F.D.A.ren (Ameriketan osasuna) baieztapena lortu du, hainbat tratamendu estetikorako, horien artean: behin behineko depilazioa mota guztietako azaletan, baita, beltzaranetan ere, pseudofolimitisa bizarrean, PFBa, tratamentu baskularrak edota hiperpigmentazio onberak. Tratamendu guzti hauek mundu guztiko dermatologo hoberenek eta Harvard institutukoek babesturik daude.



## Nola funtzionatzen du ligthseer laserrak

Laserrak argi indartsu bat sortzen du, klase bakoitzak kolore ezberdinetako argia sortzen du eta horren araberakoa izango da bere eragina ilearen folikuloan. Lighseer diodo laserra ilearen pigmentazioan (melaninan, ileari kolorea eman dion sustantzia) barrena sartzen da eta ilearen sustraia berotasunarekin desagerrarazten du, azalari inongo minik egin gabe.

## Kontuan hartzekoa

- Emaitza onenak ematen ditu eta tratamendu azkarra da.
- Bezeroenganako arreta zuzena gure teknikoekin, zure betiko zentroan. Gertutasuna, erosotasuna.
- Merkatuko prezio konpetitiboenak.
- Txanda hartzeko modu errazena, zentrora deitu eta kitto.
- Guztiz formaturiko langileak, lanerako metodologia zorrotza.

## Tratamendua hasi aurretik

- 7 egun aurretik ez moztu ilerik.
- 15 egun aurretik ez erabili produktu autobrontzeadorerik.
- Tratamendua hasi aurreko 30 egunetan eguzkia ez hartu.
- 21 egun lehenago ez da ilea dekoloratu behar.
- Azalak garbi egon behar du, makilajerik gabe.
- Herpes-a izan baduzu, abisatu teknikoari.
- Saioen artean inoiz ez da ilea sustraitik atera behar, moztu.

***Olaia Martinez** - Olaia Estetika*

Olaia
estetika
Egin ezazu otsailean laser depilazioa
eta ahaztu udan depilatzeaz.
San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25
• Garbiketak
• Makilajeak
• Aurpegi-tratamenduak
• Gorputz-tratamenduak
• Solariuma
(horizontala eta bertikala)
• Masajeak
• Manikurak
• Depilazioak

Judith
EDERGINTZA
Errosario Kalea,19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118



# ASUN LARRAÑAGA

## "URRATS BAT" ETA "EJE" PROIEKTUEN ARDURADUNA

# «Euskal Herriak pertsona suspertzaileak behar ditu»

*Tknika Berrikuntzarako eta Etengabeko Formaziorako zentroko kidea da Asun Larrañaga, eta bere ardurapean ditu "Urrats bat" eta "EJE" proiektuak. Lanbide Heziketaren munduan gazte sortzaileak bultzatzea da hein handi batean proiektu hauen helburua. Badirudi gazte sortzaileen beharra dagoela merkatuan, eta horri buruz hitz egin dugu gaurkoan gure herrikidearekin.*

**Zer da Tknika?**

Berrikuntzarako eta Etengabeko Formaziorako zentroa da. Bertatik kalitate sistemak eta e-learning materialak bultzatzen dira, besteak beste. Teknologiaren antena eta ikuzkaritza izaten saiatzen da, eta ikastetxeak enpresen beharretara prestatzen ditu. Honekin batera, sormena bultzatzen dugu "EJE" eta "Urrats bat" proiektuekin.

**Zein ezaugarri ditu pertsona suspertzaileak?**

Nire ustez pertsona aktiboa da, partehartzailea, ardurak hartzen dituena, erori arren, berriz altxatzen dena. Suspertzailea ez da soilik enpresa bat sortzen duena. Lanbide Heziketako ikasleak suspertzaile bilakatzea da gure helburua. Euskal Herriak pertsona suspertzaileak behar ditu.

**Zertan datza "EJE" proiektua?**

Lehenengo taldearen harrobia dela esaten dut nik, hau da, kurtsoan zehar sortzen diren kooperatiba batzuk dira. Benetako enpresak balira bezala funtzionatzen dute, eta beraien enpresa bikotearekin egiten dituzte negozioak. Enpresaren izaera juridikoa erabaki, produktuak erosi, saldu, fakturatu... dena egiten dute. Sormenerako dohainak garatzea da helburua, ardurak hartuz, lidergoa, taldelana ikasi, arriskuak ezagutu... Gauza hauek ikastea oso garrantzitsua da. Langile baten edo etorkizuneko sortzaile baten arteko diferentzia balore hauek markatzen dute.

**Eta "Urrats bat" proiektua?**

Proiektu honen bidez, benetako enpresak sortzen laguntzen diegu Lanbide Heziketako ikasleei. Zentro bakoitzeko irakasle bat liberatu egiten da gazte suspertzaileei laguntza emateko. Gaur egun, Lanbide Heziketako 35 zentro ditugu "Urrats bat" proiektuan. Elgoibarren, esate baterako, Mekanika eta IMH gure bi proiektu hauetan parte hartzen ari dira.

> «Ikasleak suspertzaile bilakatzea da gure helburua»

**Sormenari dagokionean, zein da zentro hauen helburua?**

Lehenengo lana ikasleei enpresa berriak sortzen laguntzeko prest daudela transmititzea da, gaur, bihar edo etzi, baina beharra dutenean hor egongo direla argi utzi behar zaie. Bigarren helburua, ikasturte bakoitzean enpresa berri bat sortzea izango litzateke. 2005-06an 15 enpresa sortzea zen gure helburua eta 17 sortu genituen. Ikastetxe guztiek ez zuten lortu enpresak sortzea, baina beste batzuk bat baino gehiago sortu zituzten. Emaitza oso positiboa izan zen.

**Zein da enpresa sortzaileen profila?**

Denetarik dago. Batzuk gazteak dira, ikasketak amaitu eta berehala enpresa berri bat sortzeko gogoa daukatenak. Beste batzuk lan munduan ibilitakoak dira, formazioa jaso ondoren, lan munduan esperientzia jaso dutenak. Guztientzat daukagu ateak zabalik eta guztiei eskaintzen diegu gure laguntza.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Elgoibar eta Euskal Herriko etorkizuna gure ahalmenaren araberakoa dela uste dut, hau da, gure seme-alabak, ikasleak eta langileak pertsona sortzaile bihurtzeko daukagun ahalmenean. Jende suspertzailea behar dugu enpresa berriak sortzeko. Nire ustez, pertsonen arrakasta profesionala ilusioan, adorean, lanean eta eta zergatik ez, apur bat suertean ere oinarritzen da, baina suerte hori lan eginez aurkitzen dela iruditzen zait.

AUTO LASTERKETA

# Josemi Gabilondok Jaizkibelko igoeran lehen postua eskuratu zuen



Josemi Gabilondo auto gidari elgoibartarra aurreneko postuan sailkatu zen, Jaizkibelgo auto igoeran. Elgoibartarra, bere Renault Alpine A-110 autoarekin, hiru txandetan garaile izan zen, 80 puntu bereganatuz.

Auto gidari elgoibartarrak, 13 segundutako aldea atera zion bigarren sailkatuari, Jose Ignacio Visori, hau, BMV 2002 Til autoarekin aritu zen.

Euskal Herriko Mendi Txapelketako auto historikoen kategorian, sailkapen orokorrari dagokionez, Josemik lorpen handia eskuratu zuela, 5. postuan sailkatu baitzen, 52 punturekin. Txapelketako irabazlea Javier Alday bizkaitarra izan zen, 126 puntu lortu zituelarik. Bigarrena, Fran Cobo izan zen (113 puntu). Hirugarren eta laugarren postuak bestalde, Aitor Ramirez (72 puntu) eta Ibai Zarragarentzat (70 puntu) izan ziren, hurrenez hurren.

## Tecnifuelle taldeko mutilek lidergoa eskuratu dute

Elgoibarko senior mutilen kategoriako Tecnifuelle taldea, Euskadiko Eskubaloi Txapelketako sailkapen orokorrean buru doa, talde donostiarrarekin puntutan parekatuta; pasa den domekan, Donostian, C.D. Egiaren aurka, 22-23 irabazi ondoren.

Bestetik, senior taldeko neskak ere denboraldi bikaina egiten dihardute. Iragan den zapatuan San Adrianen kontrako partida 19-24 irabazi zuten eta horri esker, sailkapen orokorreko bigarren postuan egoten jarraitzen dute.



## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Santutxu 1- Haundi 0
Elgoibar 2 - Tolosa 2 (Erreg)
Beti Gaste 3 - Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 9 - Beti Ona 1 (Kad)
San T. Lizeoa 2 - Elgoibar 0 (O. Inf.)
Hernani 0 - Elgoibar 1 (Inf. txiki.)
Arrasate 8 - Elgoibar 1 (Aleb.)

**ARETO FUTBOLA**

Izkepot 6- Kenci 9 (Euskal Liga)
Kenci 1- Egintza 6 (2. mail. gipuzk.)
Goierri 4- Relojes Mondaine 4 (Jub.)
Aloña Mendi 6- Elgoibar 4 (Jub.)

**ESKU PILOTA**

Udaberri Txapelketa
Lagunak 22- Ilunpe 11 (1 mail. nagus.)
Lagunak 22- Aurrera 13 (1 mail. jub.)
Lagunak 2 12- Lizardi 22 (1 mail.j ub.)
Lazkao 22- Lagunak 6 (2. mail. kad.)
Altzatarra 22- Lagunak 15 (2. mail. nag.)

**ESKUBALOIA**

C.D. Egia 22- Tecnifuelle 23 (Sen. mut.)
San Adrian 19- Lojantzi 24 (Sen. nesk.)
Pneumax 16- Trapagaran 23 (Jub. mut.)
Tecnomec A 27- Trapagaran 26 (Kad. mut.)
Aiala 27- IMH 8 (Kad. nesk.)
Olalsa 26- Egia 7 (Inf. nesk.)
Pulpo 9- Aterpe 23 (Inf. nesk.)

## [ AGENDA ]

**FUTBOLA** Mintxetan

Zapatua, 10
10:00 Elgoibar – Anaitasuna (O. Inf.)
12:00 Elgoibar – Beasain (Jub.)
16:30 Haundi – Gernika

**ARETO FUTBOLA** Kiroldegian

Zapatua, 10
13:00 Elgoibar – Deutsche
16:00 Kenci – Inter

**ESKUBALOIA** Kiroldegian

Zapatua, 10
19:00 Aterpe – Aiala B (Inf. nesk.)
17:30 Tecnifuelle – Urola (Senior. mut.)
Domekia, 11
11:00 IMH – Groseko (Kad. nesk.)

**ESKU PILOTA** Ikastolako frontoian

Barixakua, 9
22:00 Lagunak – Antiguako 2 (2. mail. kad.)
Lagunak – Eibar 1 (2. mail. nag.)

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Etxea salgai San Roke 7an. 85,73m2. Bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta garajea. Bi igogailu. ☎ 653713375
- Jacan 50m$^2$ko atikoa salgai. Urbanizazioan 2 igerileku. 2 logela, tximinia, aire egokitua. Hegoaldera begira. Garaje eta trastelekua. 230.000 euro. ☎ 630365025
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. 100m$^2$. Bizitzera sartzeko moduan. Igogailua eta ganbara. ☎ 615796592

### ALOKAIRUA

- Apartamentua alokatzen dut erdialdean. Sukaldea, komuna, logela eta egongela. ☎ 653863482
- Logela bat alokatzen dut. ☎ 635206436

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 699609190
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. 85 euro hilean. ☎ 699812566
- Garaje marraduna alokatzen dut Santa Ana kalean, Ametsa parean. ☎ 615787857
- Garajea alokatzen dut kiroldegi aurrean. 60 euro. ☎ 680632339 (Arratsaldez)

## [ AUTOAK ]

- Citroen Berlingo furgoneta salgai. 1.9D. 225.000km. 2.000 euro. ☎ 679609283
- Fiat Punto autoa salgai. 5 ate. Oso egoera onean. Merke. ☎ 656784199
- Fiat Punto diesel auto berria salgai. Txuria. 150 km. ☎ 667060911/943743120

## [ BESTELAKOAK ]

- Josteko makina bat erosiko nuke. ☎ 686521598
- San Frantzisko kaleko edergintza bat traspasatzen da. ☎ 676686758
- Haritz egurrean eginiko kutxa salgai. 60x90x1,95. ☎ 626144098

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro . Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 639882004
- Neska garbiketak egiteko prest. ☎ 667709431
- Neska garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 943530132
- Emakumea garbiketak egin, nagusiak zaindu, jostun lanak egin... ☎ 686 521598
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 616465940/943254087
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 610632782
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 943531270
- Mutila igeltsero, soldatzaile edo segurtasun goardia lanetarako prest. ☎ 610916699
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauez. ☎ 943172896 (Mertxe)
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 648865737
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943531955/655909703
- Mutil arduratsua lanerako prest. Eraikuntzan laguntzaile, adinekoak zaindu edo beste edozein lan. ☎ 638072538
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Ospitalean edo etxean. Amaia. ☎ 656774215
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ 651156960/660441275
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 616397348
- Mutila elektrikari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. ☎ 943530132
- Mutila sukaldari laguntzaile, kamarero, garbiketa lanak... egiteko prest. ☎ 638465098
- Mutila kamarero edo sukaldari lanetan jarduteko prest. ☎ 671405061
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 697431326
- Gizon gaztea peoi, igeltsero, arotz laguntzaile... moduan lan egiteko prest. ☎ 646816360 (Joselo)
- Mutila lanerako prest. ☎ 695721080
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Titulua eta esperientzia dauzkat. ☎ 630631839
- 1. eta 2. hezkuntzako klase partikularrak ematen dira. ☎ 943531054
- Emakumea garbiketa lanak edo sukaldari lanerako prest. Euskaraz dakit. ☎ 650014300
- Igeltseroa lanerako prest. ☎ 627784494
- Emakumea umeak zaindu, garbiketa lanak... egiteko prest. ☎ 943531309
- Neska umeak zaintzeko prest. ☎ 669223527
- Emakumea etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuetan. ☎ 664775970

### ESKAINTZA

- Igeltseritzako 1. edo 2. mailako ofiziala behar da. ☎ 605705204
- Gabi jatetxerako kamarera behar da, barrarako eta jangelarako. ☎ 943741230
- Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 943740241
- Neska euskalduna behar da Eibarko taberna batetarako. Asteburuetarako. ☎ 669977225
- Sukaldaria behar da asteburuetarako. ☎ 943531035

## ABISUAK

- San Roken, kiroldegi aurrean, gizonezko txamarra berde bat eraman zidan haizeak. Mendikoa, forro beltza, taila handia. ☎ 943 74 29 30
- Urre zuriko eskumuturrekoa galdu nuen Mintxetan. ☎ 618480560
- Urre zuriko eskumuturrekoa galdu nuen Mintxetan. ☎ 618480560
- 4 urteko setter arrazako txakur emea oparitzen dut. ☎ 607311890

# [ZORIONAK]



Zorionak **Paul** hilaren 12an 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez muxu handi bat.



Zorionak **Ion** gaur 9 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, anaia Anderren partez.



Zorionak **Unax** otsailaren 5ean urte bat egin zenuelako. Familiakoen eta Beñaten partez.



Zorionak **Patxi** zure 2. urtebetetzean. Muxu handi bat denon partez.



Zorionak **Arkaitz** otsailaren 7an 11 urte egin zenituelako. Gurasoen partez muxu handi bat.



Zorionak **amamai** igandean urteak beteko dituzulako.



Zorionak **Ainhoa eta Fabricia** 15 eta 6 urte egin dituzuelako. Etxeko guztien partez. Asko maite zaituztegu.



Oso ondo pasatu genuen zuen 2. urtebetetzean. Muxu potolo bana gure bikoteari.



Zorionak **Nora eta Saray** hilaren 6an eta 12an zuen eguna izan delako. Gurasoen, eta bereziki, Ane, Eider eta Roy-ren partez.



Zorionak **Irati** gaur 2 urte egin dituzulako. Gurasoen partez.



Zorionak **Yolanda!** Ondo pasa zure egunean. Gurasoen partez muxu handi bat.



Zorionak **Goiane** otsailaren 7an 5 urte egin zenituelako. Familiakoen eta Ikastolakoen partez.



Zorionak **Pako eta Juanita** zuen urrezko ezteietan. Etxekoen partez.



# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



11 igandea DOÑA MERCEDES

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 9 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 10 | Fernandez *(* Goizez Etxeberria-Errosario)* |
| 11 | Fernandez |
| 12 | Yudego |
| 13 | Zabaleta |
| 14 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 15 | Ibañez |
| 16 | Bidasolo |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak:
7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45
Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak:
7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 9 BARIXAKUA ]

21:15 **"EL VENDEDOR DE TIEMPO"**Ados Teatroaren eskutik. Herriko Antzokian.

19:00-21:00 Astelehenetik larunbatera eta 12:00-14:00 jaiegunetan**"JUANA ARRIETAREN MARGOAK"** (Otsailaren 25era arte)..
Kultur Etxeko erakusketa gelan.

11:00-13:00 edo 16:00-18:00 **"IT KAZGUNEA: INTERNETEKO DOAKO IKASTAROA"**
AMerkatu Plaza 2an. (Izen ematea: 943 74 88 28. (Ikastaroa, martxoaren 2ra arte).

## SINOPSIAK

### «El Ilusionista»



## [ 11 DOMEKIA ]

16:30 **"BATUTA"** Taun Taun Teatroaren eskutik.
Herriko Antzokian (sarrerak egunean bertan salduko dira lehiatilan).

## [ 14 EGUAZTENA ]

18:30 **"GURASOEN FORMAZIORAKO VIII. JARDUNALDIAK: GURASO ETA SEME-ALABEN ARTEKO GATAZKAK HAURTZAROTIK NERABETASUNERAINO"**
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan.
Antolatzailea: Elgoibarko Institutoko eta Herri Eskolako gurasoen elkartea.

## [ 15 EGUENA ]

15:30 **"EGUEN ZURI"**
(Kalejira King Kong etik, Foruen Plazaraino. Ondoren, dantzaldia Foruen Plazan)
Antolatzailea: Pilar Ikastetxea.

19:30 **BATZARRA**
(Gaia: Ildo politikoaren kokapen orokorra eta plangintza).
Antolatzailea: Elgoibarko Ezker Abertzalea.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN




**«El Ilusionista»**
10, zapatua: 19:30-22:15
11, domekia: 19:30-22:15
12, astelehena: 21:30
**«Modigliani» (Z.K.)**
15, eguena: 21:30

**EIBAR,** UNZAGA
**«La Caja Kovak»**
9, barixakua: 19:30-22:15
10, zapatua: 19:30-22:15
11, domekia: 19:30-22:15
12, astelehena: 19:30-22:15
13, martitzena: 19:30-22:15
14, eguaztena: 19:30-22:15
**«El Raton Perez»**
10, zapatua: 17:00
11, domeka: 17:00

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Modigliani» (Z.K.)

**Zuzendaria: Neil Burger.**
**Antzezleak: Edward Norton (Eisenheim), Paul Giamatti (inspector Uhl)...**
Eisenheim aztiak Vienan ilusionismoarekin loturiko ikuskizun liluragarriak eskaintzen ditu. Leopold izeneko Europako printze batek honen berri izatean, Eisnheim agerian utzi nahi izango du, azti iruzurtia delakoan. Horretarako, Uhl polizia bere aginduetara lanean jarriko du. Baina, Sophie von Teschenek ( Leopolderen andregaiak) eta Eissenheimek aurrez aurre topo egiten dutenean, maitasun ezkutu bat berpiztuko da bien artean.



**Zuzendaria: Mick Davis.**
**Antzezleak: Andy Garcia (Amedeo Modigliani), Elsa Zylberstein (Jeanne Hébuterne)...**
Gerra Handia bukatu da eta "Rotonda" Kafea elite artistikoaren babesleku bilakatu da. Honakoa, Picasso eta Modigliani artisten arteko jeinutasuna, harrokeria eta pasioak ardatz dituen istorioa dugu. Jeanne izeneko emakumearen hanka sartzea, berriz, Modigliani juduaz maitemintzea izango da, bere aitari ez baitzaio ongi begitanduko. Bitartean, Modiglianik bere sendia txirotasunetik ateratzeko xedez, urteroko arte lehiaketan izena ematen du. Segidan, Picassok ere bai.



**1967**. urte inguruko erretratu zahar hau **Sabin Beristainek** laga digu. Erretratuari begiratuta, Baltasar elkartean aterata dagoela dirudi, baina Sabin bera ere, ez zegoen oso seguru. Dena dela, koadrila hau afari eder bat egin ostean ikusten dugu argazkian. Ondo jan eta edan ondoren, kafea, kopa eta puruarekin ikusten ditugu hiru lagun hauek. Esan digutenez, koadrila honek sozidadean afariak egiteko ohitura handia zeukan eta askotan biltzen ziren bertan. Datu interesgarri moduan esan beharra dago, baita ere, Baltasar Elkarteak duela gutxi hartu duela emakumeak ere bazkide izateko erabakia. Gogora ditzagun zein diren mahaian ageri diren hiru gizon hauek.
Ezkerretik eskumara: **Pedro Arregi "Oleta" (†), Simon Uria (†) eta Sabin Beristain.**

---



## II. URTEURRENA

2005eko otsailaren 10ean, 75 urte zituela hil zen

***Delia Ramos Rabanos***

***"Ez zaitugu ahaztuko"***

Zure lagunak





## II. URTEURRENA

2005eko otsailaren 6an, 71 urte zituela hil zen
***Trino Sasiain Etxaniz***en oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.

***"Ez zaitugu ahazten, gure bihotzean zaude"***



RENAULT
N°1 EN SEGURIDAD

EURO NCAP ★★★★★
www.euroncap.com

## GUZTIOI GERATZEN ZAIZKIGULAKO EGIN BEHARREKO GAUZAK
## RENAULT SEGURTASUNA. GUZTIONTZAKO SEGURTASUNA





**RENAULT CLIO**
**10.000 tik €***

eta gainera Clio bat
3 ate Emotion 1.2 16 v, 75 zp
11.600 €
ABS+SAFE
Abiadura erregulatzailea eta mugatzailea
Aire girotua
Irrati CD 4 x 15w





**RENAULT MEGANE**
**12.500 tik €***

eta gainera Megane Berlina bat
3 ate Emotion 1.5 16 v, 85 zp
14.700 €
ESP Birbiraketa Kontrolarekin
Aire girotua
Aleaziozko hagunak
Irrati CD 4 x 15w

# ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA
## MUGARIK GABE**: GIDARIAREN ADINA . KARNETAREN ANTZINATASUNA . RENAULT SPORT BERTSIOAK BARNE

*JSP aholkatua Clio 3 ate Authentique 1.2 16v 75 zp eta Megane 3 ate Authentique 1.4 16v 100 zp-rako Penintsulan eta Balearretan. BEZ, garraioa, matrikulazio-zergak, Plan Prever eta sustapenak barne. Partikularrek, autonomoek eta ibilgailu-flota ez duten enpresek baliatu dezakete gehienez bi ibilgailu erosten badute 07/02/28 bitartean. Ikusten diren modeloak: Clio Dynamique 1.5 dCi 85 zp eta Mégane Dynamique 1.9 dCi 130 zp; kontsultatu prezioa. ** Eskaintzak 07/02/28 arte balio du, partikularren nahiz autonomoren batek Clio nahiz Modus bat erosteko, Renault Financiacion EFCekin (finantzatzen den gutxieneko zenbatekoa: 4.000 €) finantzatuta (beste turismogamak Multiestrenoren bitartez). Lehenengo urtebetean arrisku orotarako asegurua, 360 €ko frankiziarekin,CASER aseguru-etxearekin. Eskaintzan Clio eta Megane Sport sartzen dira eta ezin baliatu daiteke ibilgailu komertzialekin. Clio eta Megáne gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,0tik 8,4raino. CO2 emisioa (g/km) 117 eta 201 bitartean.

902 333 500
www.renault.es
RENAULT recomienda elf

EXPO ZARAGOZA 2008

RENAULT
**AUTOBERRI**
Polígono Olaso, 17. - Tel. 943 74 27 55 - ELGOIBAR
ARRASATE - AZPEITIA - IRÚN - TOLOSA

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Ezenarro arotzerixia**
Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia
3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055
☎ 943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com